

**T**rump presidente hautetsia bildu da Obama presidente jardunekoarekin. Hedabideek esan dutenez, bien taldeek zenbait hil daramatzate elkarrekin biltzen, isil-gordean, gertakizun hau gertatuko balitz. Trantsizioaz hitz egin dute. Azkar eta ongi egiteaz.

Trantsizioak, Hegoaldeko hizkeran behintzat, nirean alegia, ez du behin-behinekotasun adiera berezirik. Ez duzu erraz topatuko Espainia-ko Trantsizioa, horrela, hitz larriz, noiz amaitu zen zehaztuko dizunik edo amaitu dela esanen dizunik: inoiz amaitu ez delako seinale (eta amaitu ez diren gauzez zilegi da inoiz hasi ote ziren zalantza egitea). Gehienez ere, bigarren trantsizio baten beharra aipatuko dizute. Lehenengo amaitu delako irudipena eman dezakeen zerbait, baina bigarrenak lehenengoak bezain apurtzailetik gutxi baldin badu, ez da kezkatzerik, ez du inork nabarrituko noiz hasi eta noiz amaituko.

Nafarroan ere behin-behineko xedapen batek, Foru Hobekuntzako laugarrenak, hain zuzen, ez du traza handirik behin-behinekotik. Hegoaldeko lau eskualdeak batzoko aukera legala ematen duen artikulua horrek hogeita hamalau urte bete ditu eta osasun ona du. Mehatxu zein utopia zaien guztiek urrun ikusten dute: oreka eta diskurtsoa gordearazten duen gailu betikogarria.

## Zapatariarena

**B**adakizue Maitagarri amandreak kristalezko zapatekin jantzi zuela Mari Errauskin. Jakingo ez duzuen da, oinetakook egin zituen zapatariaren istorioa. Aguretxo uzkar bat zen, noizbait mutiko izana. Maitemindu ei zen behinola neska batekin baina neska hura beste mutil batekin ezkondu, eta mutil hark, barre egin zapatari minduari. Orduntxe erabaki ei zuen egizonak gorrotatzea eta emakumeak ez maitatzea.

Behin batean non joan zitzion Maitagarria kristalezko zapata pare behar zuela esanez. Zapataria, artean beira landu gabea, zortzi egunez aritu ei zen

beharrean. Baina Maitagarriak, klask eta klask, zapatak kolpean birrindu: «Hauek zabalegiak dira Mari Errauskinentzat!». Lau egunera itzuli eta «hauek laburregiak!». Handik egun bira eginikoen konformatu zen. Eta zapatariak pentsatu zuen Maitagarria ez zela hain maitagarria.

Eroan zizkion zapatak Mari Errauskini (dantzaldia, ezkontza...) eta bere ahizpek ere pare bana eskatu, bat-batean denek gura halakoaxeak. Agureak dozenaka egiten zuten, ordea, jendeak Maitagarria zoriontzen zuen. Amorruez aritu zen zapataria, harik eta mendekua desiratu eskuarte-  
an zuela jabetu zen arte; puntak estutu, takoiak asmatu... Eta ttak, oin bakoitzaren neurria egini-ko kartzelatxoak salgai: kristalezko zapatekin ezin inork gogorregi zapaldu. Eta gainera neguan ezin zaie galtzerdi potolorik sartu.



**JIRA**  
Angel Erro



**BIRA**  
Miren Amuriza

# Guardia Zibilaren aurkako erasoak Altsasun: terrorismoa?

**Jon Mirena Landa**  
EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria

**N**afarroako Altsasu herriko Koxka tabernan zer gertatu zen 2016ko urriaren 15ean? Gertatutakoari buruzko bertsioak oso desberdinak dira. Batzuek baitiote 50 lagunek bi guardia zibil eta haien bikoteen aurka egindako alde bakarreko eraso bortitza izan zela; eta beste batzuek diote alde aurretiko liskarra sortu zela goizeko 05:00etan, eta handik borroka batera iragan zela. Egitateak argi ez direnean, ez da posible azterketa juridiko zehatzik. Baina hasiera batetik argi omen zegoen, erasoak ezin zela terrorismo delitutzat jo, berehala Espainiako Barne Ministroak berak azpimarratu zuen bezala; horren ordez, gorrotodelituaren hipotesia plazaratu zuen.

Esandako gorabehera, urriaren 25eko auto baten bitartez, alegia egitateak gertatu eta hamar egunen buruan, Atzitegi Nazionaleko 3. Instrukzio Epaitegi Zentralak, askoren harri-durarako, terrorismo delitua izan zitekeelakoan kasuaren kompetentzia bere gain hartzeko eskatu du. Horren argudio nagusiak Covite biktimen elkartearen salaketan jasotzen den bertsio faktikoan oinarria hartzen du: hau da, erasoak ba omen duela zerikusirik Guardia Zibila Nafarroatik botatzeko estrategia eta kanpaina bortitza eta terroristarekin.

Gakoa bada, hortaz, gertatutako erasoak erakunde terroristak batekin harremanetan jartzerik ote dagoen: hau da, «lotura» ezartzerik ote dagoen. Lotura egotea, autoaren esanetan, badirudi erasotzaileen «motibazioarekin» zerikusia duela. Erasotzaileek Guardia Zibilaren aurkako gorrotz jardun ei zuten, ETAK ziharduen bezala: Guardia zibila eta jende-talde multzo jakin batzuk mehatxatzeko asmoz aritu ei ziren, ETA bezala: hots, erasotzaileek eta ETAK motibazio berbera partekatzen omen dute, eta horrek, antza denez, erakunde terroristak baten barnera sartzen ditu.

Horra hor korapilo etengabekoa sortzen duen kontua: noiz da talde terroristarekin «lotura»? Nola frogatzen da? Nahikoa al da motibazioak partekatzearekin?

Korapiloa askatzeko terrorismoa zergatik hainbeste zigortzen den argitu beharra dago lehenik eta behin. Terrorismoa antolatutako delitugintza mota bat da, larriena hain zuzen ere. Kasuotan delitua egiteko modua antolatuta egonik, ondasun juridikoen aurkako erasoak intentsuak dira eta, horren ondorioz, haien jardun kriminala eragingarriagoa izan daiteke, ekintza bakoitza krimen egileen sare oso batean kokatzen den neurrian. Antolaketa, hierarkiak, jarduteko banaketa funtzionalak nolabait justifikatzen du horien aurrean zigorrak handitu behar direla.

Antolakuntza ez ezik, jarduera terroristak helburu jakin batera zuzentzen da, izaera politikoa duen helburu normalean: ordena konstituzionala iraultzea, herri-bakea nahastea, izaera sistematikoki zabaltzea, eta abar. Terrorismoak Estatuaren legitimazio politikoaren arloan sartzen da, bete-betean, eta handik ulertzen da Estatuak duten erreazioa, erantzun penala muturreraino eramanez.

Terrorismoa egoteko, laburbildurik, antolatutako taldeak egon behar du, eta bere jarduna helburu edota «motibazio» jakin batera zuzendu ere. Baina, behin hori egonik, orduan «lotura» frogatu beharra dago, pertsona batek egiten duenaren eta talde terroristaren artean. Eta, horretarako, inolaz ere ez da nahikoa, ez luke nahikoa izan beharko, motibazioa partekatzea. ETAK proposatzen badu euskaraz aritu behar dela, euskaraz aritzeagatik ez da inor etakidea izango, ezta? Helburu politiko hutsak pertsegitzeagatik –nahiz eta ETAREN ere izan– ez da norbait etakide bilakatzen. Lotura motibazioz haratago joan beharra dago: areago molde ideologiko jakin batzuko partekatzeak ez du inongo loturarik sortzen talde terroristak batekin.

«Lotura terroristak», beraz, bi alderdi frogatzea eskatzen du: batetik, jarduera kriminal bat egiten dela larria eta funtzionala dena talde terroristarekiko (osagai objektiboa), eta, gainera, hori antolatutako taldeak

bere jardun kriminalarekin batera aritzeko helburuz (osagai teleologikoa: helburua, motibazioa). Norbait, esaterako, informazioa ematen dio talde terroristak bati azken horrek pertsona bat hiltzeko: ekarpen objektiboa bada informazio zehatza ematea, eta hori egiten da talde terroristak bere ekintza kriminala aurrera eramanez.

Altsasun izandako bertsiorik beltzenez ere non dago lotura? Zein da talde terroristak? Duela bost urte baino gehiago inolako atentaturik egiten ez duen taldea? ETA jada ez da talde terroristak aktiboa, eta horrek zailtzen du lehenik eta behin frogatu izan ere, aritzeko ordenak, planak, helburuak gero eta zailago frogatu daitezke. Baina ETA talde terroristak izanik ere, zein da Altsasuko liskarraren osagai objektiboa: lesio-delitu bat taberna baten barruan goizeko 05:00etan? Eta, azkenik, lesioa ETArekin bat egiteko helburuz egin da? ETAK defendatzen omen dituen ideia lauso eta orokorrekin bat etorritik ala ETAREN plan kriminal zehatzekin bat etorritik? Non daude horretarako frogak? Izan ere frogarik ez baita pertsona jakin baten ideologia eta lagunen ideologia.

Ideologia hutsetik abiatuturik norbait egiten duen jardun guztia terrorismotzat jotzen bada, ideologia hori *de facto* debekatu da. Eta hori da, batzuek behin eta berriro darabilten tesia: ETAK independentsia eskatzen duenez edota Guardia Zibila Euskal Herriatik kanpora botatzeko eskatzen duenez, helburu politiko horiek «kutsatuta» omen daude, eta, horren ondorioz, datorrena susmagarria da. Ideologia kutsatu hori defendatzeak terrorismo-sarean sartzen zaitu neurri handi batean, egiten dena –ekarpen objektiboa– aztertu gabe. Helburutik dena frogatzen da, eta ez alderantziz. Terrorismoarekin lotura, unerik gogorrenetan, osagai objektiboz hustu eta «helburu» edota «motibazio» hutsarekin frogatuz ematen zen, epaile eta fiskal gehienek albo batera begiratzen zuten bitartean. Bada garaia, zuzenbide gizalegezkoari helduta, «lotura» edukiz bete eta horren frogatzea estandarra eskatzeko: hori egingo balitz, kasu hau inoiz ez litzateke helduko Auzitegi Nazionalera.